# BERRIGARA

90. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1995, maiatzak 5



## Udaletxearen inaugurazioa larunbatean

## *Antzerkigintzan buru-belarri*

# Mireia Gabilondo





CITROËN

**ION AUTOAK**

Urarte, 10. Tfnoak: 76 47 49 / 76 47 73 Faxa: 76 54 27

*Hil honetan, ESKAINTZA DISDIRATSUAK aurkituko dituzu gure modeloetan. Bisita gaitzazu eta proba itzazu 95ko CITROËN auto zoragarriak!!*



Levi's
536
Levi's
451
516
Cristina
Zure LEVI'S denda!!
Levi's
501
517
Levi's

ARANZADI IKASTOLA

BATXILERGOKO IKASTETXE BAIMENDUA

• BBBko 1., 2. eta 3. mailarako eta UBIrako aurrematrikula
• Plaza mugatuak
• Epea: maiatzaren 4tik 18ra

BERRI GEHIAGO JASO NAHI IZANEZ GERO,
DEI BULEGO ORDUTAN TELEFONO HAUETARA:
76 26 76 • 76 56 76

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

**Argitaratzailea:**
JARDUN Elkartea.
Masterreka, 13 Bergara.
Tfnoa eta Faxa: 76 08 19
**Zuzendaria:**
Eneko Azkarate
**Erredakzioa:**
Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar
Jone Larrañaga
**Maketazioa:**
Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil
**Publizitatea:**
Alex Azkarate
**Harpidetzak:**
Gorka Elorza
**Testuen zuzenketak:**
Estepan Plazaola
Maripi Laskurain
Alex Labaien
**Erredakzio kontseilua:**
Gorka Elorza
Miguel Angel Elkoroberezibar
Alex Labaien
Iñaki Eraña
**Komikiak:**
Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Jose Martin Ezenarro
Julian Ezenarro
Alex Ugalde
Unai Azkarate
**Banaketa:**
Txantxangorri taldea
**Tirada:**
3.900 ale.
**Inprimategia:**
Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)
**Copyright:**
BERRIGARA
**Lege gordailua:**
SS 50/91
**ISSN:**
1130-6599

**BERRIGARAk** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

# MIREN URKIJO

## *Taun-Taun txotxongilo taldeko kidea*

**- Nola joan da Txotxongiloen Jaialdia?**

- Oso ondo, uste baino hobeto esango nuke. Laguntza haundia jaso dugu eta publikoaren erantzuna ere azpimarragarria izan da. Alderdi positiboak aipatzekotan, ikusle gazte asko izan dela (helduak ere bai), aktuazioak maila altukoak izan direla eta jendeak ikusitakoarekin gozatu egin duela. Kanpoko jenderik? Etorri da, bai, eta bestalde parte hartu duten taldeak ere oso gustora egon dira, liluraturik geratu dira hemengo giroaz. Guretzat sorpresarik haundiena Kartzela Zaharrarena izan da, ez genuen uste hain erantzun ona jasoko zuenik. Oso ondo dago honelako ekitaldiak



egiteko eta jendearen partetik ere harrera ezinhobea izan dute Kartzelako ekitaldiek.

**- Jaialdia urtero egitea pentsatu duzue?**

- Ez, lan ikaragarria baita. Denbora asko exijitzen du eta ezinezkoa izango litzateke, gure asmoa urte batean lan berri bat egin eta hurrengoan jaialdia prestatzea da.

***"Jaialdian parte hartu duten taldeak liluraturik geratu dira hemengo giroaz"***

I T U R R I O N E T I K

## Deba Garaiko Kirol Gida kaleratuko da datorren astean

Deba Garaiko kirol zerbitzuek kirol gida bat kaleratuko dute hurrengo astean.
Bertan, Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Elgeta, Eskoriatza, Oñati eta Bergarako kirol instalazioak (publiko zein pribatuak), kirol elkarteak, kirol dendak edota goian aipatutako herrietan hemendik abendura bitartean iragarrita dauden kirol ekitaldien berri jaso ahal izango da. Aipatutako gidak 30 orrialde izango ditu, euskaraz eta gazteleraz idatzita dago eta printzipioz 3.000 ale kaleratuko dira. Interesatuek Udaleko Kirol Zerbitzuan jaso ahal izango dute kirol gida.

E S A N D U T E

"Behin baino gehiagotan harritu ohi nintzen eta isiltasunik sakonenaz entzun nizkion Josu Oregiri Europako Ilustrazioaren iturri lerdenak edo Azkoitiako zalduntxoen asmo jatorrak. Bergarako Erret Mintegia inork gutxik bezala ezagutzen zuen. Aita Barandiaranen ikasletzat zeukan bere burua. Egia denak esaten hasi naizenez, gure etnolojiak ez zeukan ezkuturik Josurentzat. Gure kondaira-aurreak ere ez. Europako literaturarik onena ezagutzen zuen. Dostoyevski, Tolstoi, Chejov eta Puskin haundietaz sarri mintzo ohi ginen".

**XABIER AZURMENDI**
Idazlea
EL DIARIO VASCO

●

"Euskal idazleen artean obra jasoak eta pretentziosoak idazteko joera dago. Beste estilo batzuk jorratu beharra dago".

**JUAN MARTIN ELEXPURU**
Idazlea
EL CORREO

●



LEYENDAS DE PASION
Ostirala: 22.30.
Larunbata: 22.30.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.30.
Astelehena: 17.00, 19.30, 22.15
(Ikuslearen eguna).



VUELVE COLMILLO BLANCO
Larunbata: 17.00, 19.30.
Igandea: 11.30.



SIRENAS
Osteguna: 20.00.

## Zinea

▼▼ *Ludlow* familiaren bizitza kontatzen zaigu **Edward Zwick** zuzendariaren filme honetan. Aitak (**Anthony Hopkins**) ejerzitoa utzi eta Rockies mendietara joango da bizitzera bere familiarekin. *Tristan* (**Brad Pitt**), *Alfred* (**Aidan Quinn**) eta *Samuel* (**Henry Thomas**) hiru semeak banaezinak dira baina ez dute imajinatu ere egiten beren bizitzek izango duten etorkizun biolentoa.

▼▼ Aurreko zatiaren arrakastari eutsi asmoz, **Walt Disney**k *"Colmillo blanco"* txakurraren abentura berriak dakarzkigu. Alaskako bizi egoera gogorregia omen da eta errekatik behera bidaia bati ekingo dio txakurrak. Bidean *Haida* indio tribu batekin topo egingo du eta txakurrak eta indioek mehatxu berriei aurre egin beharko diete.

▼▼ **Elle MacPherson** *top-modelak* eta **Hugh Grant** aktoreak (*Cuatro bodas y un funeral*) protagonizatutako filma. 1930 urtean *Norman Lindsay* pintoreak (**Sam Neill**) eta bere modeloek australiarrak eskandalizatu zituzten beren margoekin. Inglaterratik etorri berria den bikote batentzat haiek ezagutzea esperienztia berria izango da.

## Deiak

▼ **1936**an jaiotako bergararren anaiarteko eguna maiatzaren 21ean. Izen ematea (2.000 pezeta) Antxoni eta Eusebio II tabernetan.

▼ **60 urte** aurten egiten dituztenen anaiarteko eguna maiatzaren 21ean. Izen-ematea Lazpiur harategian, Poligonoko supermerkatuan eta Azkarate autozerbitzuan.

▼ **Antton Arrillaga**ren margoak Eibarko Arrate Kultur Elkartean (Zuloagatarren, 3).

▼ **Udalerri** Euskaldunen Eguna igandean Bermeon.

▼ **Santa Kruzeko** jaia igandean San Juanen. Goizeko 11etan meza eta ondoren luntxa.

## Ogia

▼ **Igandea 7:** Bolintxo.

## GOARDIAKO FARMAZIAK

▼ **Ostirala 5:** Mozos.
▼ **Larunbata 6:** Camacho.
▼ **Igandea 7:** Camacho.
▼ **Astelehena 8:** Puy.
▼ **Asteartea 9:** Guallar.
▼ **Asteazkena 10:** Estella.
▼ **Osteguna 11:** Mozos.




ETXEPARE-BILINTX
LIBURUDENDA
Liburuak eta diskoak
Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

# Mireia Gabilondo

**Bihar larunbata Tanttaka taldeak *Denak errudun* antzezlana eskeiniko du Zabalotegiko aretoan gaueko 10.30etan. Mireia Gabilondok bertan parte hartzen duen aktoresa bergararrak, beren azken lana eta etorkizuneko proiektuei buruz hitzegin digu.**



Garbiñe Losada, Mireia Gabilondo, Teresa Calo eta Amaia Cuende antzezlaneko protagonistak.

**- Zeri buruzkoa da "Denak errudun"?**

- Martine Tartour frantziar idazlearen nobelan oinarrituta dago. Haurdun geratu zenean idatzi omen zuen eta esperientzia hori, 9 hilabete horietan gertatzen zaiona, kontatzen digu lehendabiziko pertsonan ikuspuntu ironiko eta kritiko batetik. 4 aktoresak emakume horren papera egiten dugu, bere esperientziak eta haurdun izate horrek suposatzen diona kontatuz. Horrez gain, beste zenbait pertsonaia (laguna, medikua...) ere lantzen ditugu. Ironiarekin kontatutako komedia.

**- Zer nolako harrera izan duzue?**

- Ona. Azaroan estreinatu genuenetik 20 bat emankizun eman ditugu. Kontutan izan Euskadin muntaia bat estreinatzen duzun momentutik mugitzen hasten zaren arte itxaron egin behar duzula honelako aktuazioak askoz aurretik zehaztuta izaten direlako. Baina dagoeneko Salamancan, Huescan eta Sorian ere izan gara eta pozik gaude oraingoz.

**- Zein da euskal antzerkiaren egoera?**

- Zaila da antzerkia saltzea, udaletan ere antzerkirako diru gutxi izaten delako. Teatroa beti egon da gaizki, baina gaizki egon arren hainbeste urtetan egoteak zedozer esan nahiko du, oraindik hor jarraitzen dugu eta... Zailena jendea teatrora eramatea izaten da, askotan jendeak ez duelako ezagutu ere egiten.

## "Zaila izaten da jendea teatrora eramatea, askotan jendeak antzerkia ez duelako ezagutu ere egiten"

**- Egin dituzuen lanetatik zein gustatzen zaizu gehien?**

- Azkena esan ohi da beti baina "Agur Eire agur" ere asko gustatu zitzaidan. Irlandaren egoera azaltzen zen herri txiki baten ikuspuntutik, jendeari hango egoerak nola ikutzen zion etab. Baina estilo ezberdinak landu ditugu eta hori da onena, tartekatzea. Orain, adibidez, egoera nahiko latza pasatzen ari gara eta ez da beharbada momenturik egokiena drama bat egiteko. Komediak, aldiz, harrera ona izan du.

**- Etorkizunerako asmorik?**

- Nik poesia errezital bat lantzeko asmoa daukat beste mutil batekin eta Iñaki Salvador pianujolearekin. Euskadiko hainbat poeten lanak aukeratzen nabil orain, besteak beste, Atxaga, Sarrionaindia, Joxerra Gartzia edota Xabier Montoiarenak. Eta bestalde, hurrengo muntaia prestatzen hasi gara eta horretarako ziurrenik Quim Monzóren errelato batzuetan oinarrituko gara. *El porqué de las cosas* bere liburua egokitzea nahi genuen baina oraintsu pelikula egin denez, beste zerbait aukeratu beharko dugu ziurrenik.

**- Bergaran aktuatzeko gogoz?**

- Bai. Ilusio haundia daukat. Ea jendea animatzen den Zabalotegira etortzen...

## Argazki bila

Hipokritak argazki bila, "klik", hauteskundeetako irribarrea, Matxiategi poligonoko 1. eta 2. faseetan gertatu zen bezala, obra bukatzeko presaka, hauteskundeak baitatoz, eta auzokideei kasurik ere ez.

Gaur egun ezin da gure Ipintzako iturrira iritsi. Gure lursail bat lotsagabeki lapurtu digute eta urtarrilaren 1an salaketa idatzi bat sartu genuen arren gure Udalean, ez dugu inolako erantzunik jaso. Beren politika: "hechos consumados"

"Ondo informatu gabe geunden"

"Bidea libre baina hesiz itxita"

Non daude gure eskubideak?

Zergatik salto egin behar dugu hormen gainetik Ipintzako iturrira joan ahal izateko?

Zergatik ez diezue kasurik egiten legeei hala komeni zaizuenean?

Non dago gure zorbidea?

**R. B. 15.363.106**

**Auzokide talde baten izenean**

## Txotxongiloekin gozatzen

Lerro hauetatik zorionak eman nahi dizkiet txotxongiloen jaialdia antolatu duten guztiei. Benetan oso lan interesgarriak ikusi ahal izan ditugu aurreko astebukaeran Bergaran eta antzerkia maite dugunok asko gozatu dugu emanaldi ezberdinekin.

Pena bakarra niretzat jende heldu gehiegi ez ikustea izan da. Oraindik ere askok eta askok txotxongiloak haurrentzako gauza bat dela uste dute eta etorritako taldeek argi utzi dute hori ez dela horrela. Sentsibilitate haundiko eta umore fineko aktuazioak emozionatu egin gaituzte ikusle guztioi eta emanaldi bakoitzaren amaieran entzun ahal izan ziren txaloak horren adibide dira.

Pena bakarra kalean txotxongiloen giro horrek oihartzun gehiegirik ez izatea izan da. Igandean egin zen moduko kale espektakulo gehiago egin behar ziren nere ustez jendea emanaldietara erakartzeko (nahiz eta ia guztietan aretoak txiki geratu). Aretoak txikiak geratu dira bai, eta oso erosoak ere ez dut uste gertatu zaizkigunik. Baina azken batean txontxongiloekin igarotako astebukaera zoragarria izan da eta ea hurrengo edizioan, hemendik bi urtera (posible litzateke jaialdia urtero egitea?) ere maila altu horri eusten diogun denon artean. Eta ez dadila inor akonplejatu txotxongiloak ikustera joateagatik. Ziur nago ez dela inor damutuko eta benetan harrituta geratuko dela txotxongiloekin egin daitezkeen gauza harrigarriekin. Agur bero bat guztiei.

**Jokin Iriondo**

## Tiiira biraka

UNAI AZKARATE



### ◆ Egunkari festa

Ekainaren 11n Arrasaten ospatuko den Egunkari festako txoznan lan egin nahi dutenek JARDUNera (76 08 19 telefonoa) deitu dezakete maiatzaren 12a baino lehen.

### ◆ Lanbide Hastapena

Deba Garaiko Mankomunitateak 16 urtetik 18 urtera bitarteko langabetuentzat Lanbide Hastapeneko hainbat ikastaro iragarri ditu. Bertan, besteak beste, elektrizitatea, aroztegia, mekanika, sukaldaritza, artisaugintza edota ofimatika landu ahal izango dira 1995ko irailetik 1996eko ekainera bitartean. Interesatuek Udaleko 77 91 65 telefonora jo dezakete informazio eske.

### JAIOTAKOAK

**Miren Zubikarai Horrillo**
Apirilak 22
**Jone Eguren Balzategi**
Apirilak 26
**Olatz Ibabe Garitano**
Maiatzak 1

### HILDAKOAK

**Ramona Orbea Jauregi**
Apirilak 28, 89 urte
**Gabriela Bergaretxe Ibabe**
Apirilak 30, 81 urte
**Mari Tere González Arias**
Maiatzak 3, 29 urte

# Bihar larunbata inauguratuko da Udaletxe berriztua

## *Eli Galdos bertan; Bergarako ereserkia estreinatuko da*

**Bihar** larunbata, goizeko 11etan, Udaletxeko berrizte lanen inaugurazioa egingo da Udaletxeko Areto Nagusian. Bertan, besteak beste, Eli Galdos Diputatu Nagusia, Anton Arbulu Hirigintza Diputatua eta Victoriano Gallastegi alkatea izango dira.

Agintariei ongietorria eta harrera egin ondoren, Eduardo Muruamendiaraz Euskadiko Aurresku txapeldun bergararrak ohorezko aurreskua dantzatuko du. Jarraian, Xamatz dantza taldeak Ikurrin dantza eskeiniko du eta ondoren udal eta foru agintariekin inaugurazio ofiziala izango da. Amaitzeko, Bergarako Orkesta Sinfonikoak bi pieza eskeiniko ditu: batetik, Haendelen "Water music" eta bestetik Bergarako Ereserkiaren estreinua. Himnoa Alfredo González Chirlaque (musika) eta Juan Martin Elexpururen (letra) artean egin dute.



Udaletxearen atzekaldean adokina berreskuratu da.

#### Udaletxearen historia

Udaletxea XVII. mendeko bukaerako eraikuntza da. Lucas de Longa arkitektuaren zuzendaritzapean, obrak 1679 eta 1700 urte bitartean egin ziren. Juan de Herreraren estiloan oinarriturik, apaindura urriko estilo barrokoko eraikuntza da.

Bihar inauguratuko diren berrizte lanak 1992an hasi ziren. Fatxadak, eskailara nagusia, Simon Arrietaren pinturak eta Areto Nagusia berritzeaz gain, Udaletxearen gainontzeko gela eta bulegoak ere erabat berritu dira. Horrez gain, eskalinata baten bidez Ariznoa eta San Martin plazak elkartu dira eta Udaletxearen atzekaldean adokina berreskuratu da.

"Construcciones Amenabar" enpresak burutu ditu Udaletxeko berrizte lanak, Iñaki Aspiazu arkitektuaren proiektuari jarraituz. Lanek 867 milioi pezetako aurrekontua izan dute eta Gipuzkoako Diputazioak 400 milioitako dirulaguntza eman du.

Udal zerbitzu guztiak, artxiboa ezik, Udaletxean dira orain dela pare bat astetik. Hauek dira telefono berriak: Idazkaritza (77 91 00), Alkatetza (77 91 01), Faxa (77 91 63), Kontuhartzaileltza (77 91 64), Gizarte Ongizatea (77 91 65), Euskara Zerbitzua (77 91 66), Kirolak (77 91 67), Bulego Teknikoa (77 91 68), Udaltzaingoa (77 91 06) eta Artxiboa (77 91 32). Azken hau ekaina aldera Udaletxera pasatzea espero da.

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
*Sukalde eta bainu enzimerak*
Uriarte, 8 BERGARA
☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxa: 76 04 77

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07
*Tomas Gezalaga*
ANTZUOLA BERGARA
• Apainketarako eta industriarako pinturak •
• Paper margotuak •
• Moketak eta tapizatuak •

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi ☎ 76 15 09

### ◆ Hauteskunde sindikalak

Hauteskunde sindikalekin jarraituz, Torunsan emaitza hauek eman ziren pasa den apirilaren 21ean: ELAk 6 ordezkari lortu zituen, CC.OOk bi eta UGTk, berriz, ordezkari bat.

### ◆ EAJren Uri Batzarra

Ostegunean, hilak 11, ohizko Uri Batzarra izango da arratsaldeko 8etan Batzokian. Alderdikide guztiei bertan parte hartzeko deia luzatzen zaie. Bestalde, maiatzaren 28an botoa korreoz eman nahi dutenek Batzokian bertan jaso dezakete beharrezko informazioa.

### ◆ Kermiren omenezko festa Arrasaten

Tunantes del Norte antzerki taldea eta IHES Ekimena taldeko partaide izan zen "Kermi"ren omenezko festa eguna iragarri du IHES Ekimenak larunbaterako Arrasaten. Egun osoan zehar hainbat ekitaldi (musika, antzerkia, kalejira...) izango dira eta gauean, 21.30etan, rock kontzertua Gaztetxean Kumulo de Limbo, Xementerio eta Soziedad Alkolika taldeekin.

### ◆ Buruko kontrola ikastaroa

larunbat eta igandean buruko kontrolaren Silva metodoari buruzko ikastaro bat emango da Arrasateko Merced Ikastetxean. Larunbat goizean egingo den ikastarorako sarrera doan izango da. Izen-ematea eta ikastaroari buruzko argibide gehiago (94) 460 19 04 telefonoan jaso dezakezue.



Erret Mintegiaren Fondoaren inbentarioa jasotzen da gaur aurkeztuko den liburuan.

# Seminarioaren Fondoari buruzko liburuaren aurkezpena

## *Elisabet Bergarak egindako lanaren ondorioa da*

"Inventario del Fondo del Real Seminario" liburuaren aurkezpena egingo da gaur arratsaldeko 7 t'erdietan Udaletxeko Areto Nagusian. Bergarako Udalaren erantzunkizunpean, Irigoyen Patronatoak emandako 9 hilabeteko beka bati esker, Elisabet Bergarak fondoaren sailkapena eta deskribapena egin du.

Liburua, "La Ilustración vasca" bildumaren barruan, argitaratu dute Udalak eta Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak. Udalak, finantziazio modura, 400 liburu erosiko ditu 300.000 pezetatan. Guztira, 1.000 liburu kaleratuko dira eta 2.000 pezetatan jarriko dira salgai.

Lan honetan ikastetxeak XVI. mendetik XIX. menderarte sortutako agiriak aurki daitezke: kontuak, gastuak, ikasleei ezarritako zigorren deskribapena, nota agiriak, sarrera eskaerak, fitxak, etabar luze bat. Seminarioa hasieran jesuiten zuzendaritzapean egon zen, geroago Euskal Herriaren Adiskideen Elkartepean, ondoren Estatuak hartu zuen ikastetxearen ardura eta, azkenik, Domingotarrak.

Liburuaren aurkezpenaren aurretik Euskal Herriaren Adiskideen Ellkarteko "Adiskide Kolektiboa" izendatuko dute Bergarako Udala. Ekitaldian, besteak, beste, Juan Ignacio De Uria Gipuzkoako EHAEko presidentea, Jose Maria Aycart Gipuzkoako EHAEko idazkaria, Victoriano Gallastegi alkatea, Koldo Pereira Kulturako zinegotzia eta Eli Bergara liburuaren egilea izango dira.

AGIRREBEÑA
oinetakoak
arropa denda
lenzeria
Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

Maxim's
☎ 76 20 61

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea
Bidekurutzeta, 29
☎ 76 22 90 - 76 26 75

Erdiko kale, 19
Tfnoa: 79 17 92
ARRASATE

MERCHE

Parrokia ondoan



Andrazkoentzako Udaberri-uda moda guztia.

Baita taila bereziak ere.

Haurdun dauden neskentzat egun-eguneko moda



Udaberriko Moda gaztea, taila bereziak barne

Laura

Erdiko kale, 30
Tfnoa: 79 05 80
ARRASATE

# Ekonomia

## Akzioak

**- Zer dira akzioak? Nola eros daitezke?**

- Elkarte anonimo edo enpresa baten kapitalaren partizipazioak lirateke eta boltsan salerosten dira kotizazioaren arabera. Akzioak erosteko edozein banketxetan agindua ematea nahikoa izaten da. Baina akzioak erosteak arrisku bat suposatzen du eta arrisku hori neurtu egin behar da aurretik. Adibidez, errenta fijora erosteak errenta aldakorrera erostea baino arrisku gutxiago suposatzen du.

**- Zein probetxu lortu dezakegu akzioekin?**

- Akzioek bi probetxu dituzte: dibidendoak eta espekulazioa. Dibidendoak enpresak bere irabazien arabera akzio bakoitzeko banatzen duena litzateke eta espekulazioan, berriz, boltsaren gorabeheren menpe egongo ginateke, espekulazioa da azken batean: saiatu ahalik eta merkeen erosten eta garestiago saltzen.

**- Zeren arabera izaten dira boltsaren gorabeherak?**

- Alde ekonomikoa (enpresen martxa, irabaziak, salmentak, inflazioa, langabeziaren datuak...), politikoa (Filesa edota Banestoko eskandaloak, egoera politikoa lasaia den ala ez...) eta diruaren mugimenduak (atzerriko inbertsioek ere eragin haundia izaten dute gure boltsan) funtsezkoak izaten dira boltsaren norabidea zehazteko. Tokio, Nueva York edota Londreseko boltsek eragin haundia izaten dute eta dolarrak eta Bundesbank Alemaniako bankuak ere zeresana izaten dute mundu guztian. Aurreko urtea esate baterako oso txarra izan zen eta adituek ere ez zuten asmatu, boltsak gora egingo zuela iragarri baitzuten.



**IÑAKI EGUREN**
*(Euskadiko Kutxako Zuzendaria)*

**- Zer gomendatuko zenioke akzioak erostea nahi duen norbaiti?**

- Lehenik eta behin arriskurik nahi ez badu, ez erosteko. Eta akzioak erosi nahi baditu, dibertsifikatu egin dezala inbertsioa.

**- Zein sektore dira seguruenak?**

- Elektrikoa, konstrukzioa, banketxeak, ura eta gasa... Baina horretarako gainean egon behar zara, zer nolako mugimenduak emango diren jakiteko. Pelota moduan ere, ezin duzu ezagutzen ez duzun pelotari baten alde jokatu. Boltsan ere Madrilen edo Bilbon ematen den informazioa ezinbestekoa izaten da.

**- Zein alternatiba dago aditua ez den batentzat?**

- Boltsako Inbertsio-fondoak. Bi abantaila dituzte: batetik zure dirua aditu batzuren esku uzten duzu eta, bestetik, zenbait abantaila fiskal (ez dago erretentziorik eta inbertsioa zenbat eta luzaroago mantendu zergak arindu daitezke) lor dezakezu. Inbertsio-fondoen barruan alternatiba ezberdinak daude: boltsan bakarrik inbertitzea edota mixtoa (boltsan eta errenta fijoan). Baina merkatua da eta dirua galtzeko arriskua ere badago, hori beti dago, izan ere 1993tik hona Inbertsio-fondoek behera egin dute boltsarekin batera.

### "Akzioak erostean dagoen arriskua neurtu egin behar da "



Banestoren eskandaloak eragina izan zuen boltsaren beherakadan.




ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
• Zoruen kutxilatu eta barnizaketa •



Orain dela zazpi urte sortutako irratizale elkartean 60 lagun biltzen dira.

# Irrati barik ezin bizi

## *Surra elkarteak herriko irratizaleak biltzen ditu*

**Duela 7 urtetik 60 lagun dabiltza Surra irratizale elkartean. Elkartekideei mundu guztiko jendearekin berba egin eta harremana izateko aukera eman die irratiak. Antolatzen diren ekitaldietan eta larrialdietan ere lagundu izan dute.**

Surra elkarteak irratizaleak biltzeaz gain, zaletasuna bultzatu eta ekintzak antolatzea du helburu.

Elkartean 17 urtetik gorako jendea dago. Josu Leturia eta Andoni Erdabidek esan digutenez, elkartean sartzeko ez dago inolako baldintzarik, ez dago irratia eduki beharrik ere: *"elkarteko egoitzan badugu irrati bat eta badago horrekin ibiltzen den jendea"*. Elkartekoak ostiralero biltzen dira, baina kexu dira: *"orain dugun lokala 6 hilabeterako eman ziguten eta 6 urte daramagu bertan; gero eta gehiago gara eta egoitza oso txiki geratu zaigu"*.

### Erraza da irratia erabiltzea

Irratizale hauen esanetan, erraz ikasten da irratia erabiltzen, *"norbaitekin berba egiteko nahikoa da dagokion frekuentzia sakatu eta pertsonaren kodigoa eskatzea. Deia frekuentzia horretan dauden guztiek entzuten dutenez, horretarako esaten da letrez osatutako kodigoa (CDA, KGO...)"*. Denborari dagokionez, hilabete bat nahikoa da irratiz hitzegiten ikasteko.

### Besteak entzuten ikasten da

*"Ikasteko onena beste batzuk hitzegiten ari diren bitartean erabiltzen duten hizkuntza (nazioarteko kodigoa) entzutea da. Aldizkarien bidez ere asko ikasten da, baita zaletuekin berba egiten ere"*.

Irratizaleek 4 motatako irratiak erabiltzen dituzte: *"alde batetik CB edo hiri banda dago. Banda honetan dabiltzanak estatuak ez ditu irratizaletzat jotzen, baina guretzat badira. Kamioilariek-eta erabiltzen dutena da, eta ia irratizale guztiak honelako irratiekin hasten dira. Bestetik, B, C eta A lizentziak daude. Lizentzia bakoitzak frekuentzia eta hedapen desberdinak ditu. Bergaran ia guztiok B lizentzia dugu"*.

### Azterketa egin beharra

Irratizaleak ordea, ez dira B lizentziarekin konformatzen, *"gure ametsa A lizentzia ateratzea da,*

Usoa Pub



☎ 76 38 57
Irala, 1

Goierri
AUTOGIDARIEN ESKOLA
Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50




Arauak dioenez, erlijioaz, politikaz eta futbolaz ezin da berbarik egin irratitik; irainik ere ezin da esan.

*A-rekin irrati guztiak erabil daitezkeelako, baina azterketa zaila izaten da morse jakin behar delako".*

Irratia erabili ahal izateko, legeztatu egin behar da; horretarako lizentzia bakoitzari dagokion azterketa gainditu, eta asegurua eta 5 urtero 15.000 pezetako kanona ordaindu behar dira.

**Hobby garestia**

Irratizale izatea garestia da: CB mailako irrati batek, bataz beste, 35.000 pezeta balio du, B-koak 50.000-200.000 bitartean, eta C eta A-koek 200.000 eta 10 miloi bitartean. *"Garestiena irratia eta osagarriak (mikroa, antena...) dira. Mantenimendua, ostera, merkea da, pilaz ibiltzen direlako".*

**Jendea ezagutzeko aukera**

Irratiak jende askorekin hitzegiteko aukera ematen duenez, lagun asko egiten da. *"Bi koadrila ditugu, norberarena eta irratizaleena. Gehien Bergarako eta bailarako jendearekin mintzatzen gara, baina baita kanpokoekin ere. Kanpoan beti egiten dugu irratiz ezagututako norbaitekin topo".*

Irratiko harremanak pertsona aurrez aurre ezagutzea ekartzen du *"lehenengo irratiz ezagutzen da, baina denborarekin aurrez aurreko harremana sortzen da. Duela gutxi esaterako, donostiar bat eta argentinar bat irratiz ezagutu eta ezkondu egin dira".*

**Komunikazioaren frogatzat txartelak**

Irratizaleak pozik handiena atzerriko norbaitekin hitzegiten duenean hartzen du. *"Inglesez ondo moldatzen ez garenez, gehien italiarrekin edo hego-ertamerikarrekin jarduten dugu".*

Atzerriko norbaitekin hitzegitea lortzen bada, elkarri norberaren helbidea eskatzen diote eta lagunei euren arteko elkarrizketa izan dela erakusteko txartelak trukatzen dituzte. Txartelez gain, pegatinak, dirua eta bururatutako gauzak ere bidaltzen dituzte.

**Ezin edozer esan**

Irratizaleek gauza orokorrez hitzegiten dute, *"eguraldiaz, norbere buruaz, herriaz... Ezin da nahi duzun guztia esan, elkarrizketa edonork entzun dezakeelako. Komeni ez den zer-*

**"Etxeren batean telebista, bideoa edo garbigailuak arazoren bat duenean errua irratizaleari botatzen zaio, baina normalean gure ekipoak ondo jarrita egoten dira"**

iletxo
ileapaindegi mistoa
BEGOÑA ARZELUS
Fleming Doktorea, 7 BERGARA
☎ 76 53 15

BEHEKO TABERNA
Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

IKUSI
ALKANDORAK, JERTSEAK, BAKEROAK ETA OSAGARRIAK
Irizar, 2 ☎ 76 53 09



Etxean, normalean, gauez berba egiten due irratizaleek.

**"Jende asko ezagutzen duzu; herritik ateratakoan edonon dituzu irratiz egindako lagunak. Irratiak engantxatu egiten du..."**

*bait entzutea tokatu izan zaigu eta behin baino gehiagotan emendatu behar izan dugu".*

Horretaz gain, zenbait arau ere badaude. Esaterako, *"ezin da erlijioaz, politikaz edo futbolaz berba egin eta, biraorik eta irainik ere ezin da esan".*

**Era guztietako ekintzak**

Irratizaletasuna hobbya izateaz gain, bestelako ekintza eta zereginetan ere aritzen dira: *"zenbait ekintzatan antolatzaileek laguntza behar badute, guk gustora hartzen dugu parte. Kros, xake eta mountain-bike txapelketetan, Gorlako kotxe igoeran... koordinazio lanak egin ditugu. Larrialdietan ere lagundu izan dugu: uholdeetan, suteetan... Gainera edozertarako prest gaude, edozein taldek nahiz pertsonak gure beharra badu, guk lagunduko digu. Nahi duenak jo dezake gugana".*

**Ikusten ez den hobbya eta lana**

Irratizaletasuna ez da begibistako hobbya edo zeregina. *"Dela argazkigintza, dela dantza, beste edozein jarduera agerikoa da, baina irratizaletasuna, lehiaketak eta erakusketak antolatu ditugun arren, irratizaleok baino ez dugu ezagutzen. Pixka bat zabaltzeko eta jendeak ezagupidea izan dezan, asteazkenero lehiaketa bat egiten ari gara. Lehiaketa zabalik dago eta mundu hau ezagutu nahi duen oro gonbidatzen dugu bertan parte hartzera".*



Irratizaletasuna zabaldu nahian Surra elkarteak asteazkenero irrati lehiaketa antolatzen du. Irratirik eduki beharrik ere ez dago, nahi duen orok har dezake parte.

OILAGORRA
TABERNA
Barrenkale, 21 BERGARA

YAZKI
UME GAZTE
Neska eta mutil
Irizar, 3 ☎ 76 16 14
Ibargarai, 8 ☎ 76 54 73

PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92

## Gaia landuz

# Kezka bat! Gure etorkizuna

**Mariaren Lagundia eskolako LH IIko 3. mailako taldea gara eta artikulu honen bitartez, egiten ari garen "gutxitu psikikoen hezitzaile teknikoei" buruzko ikasketen berri ematea da gure asmoa, eta horrela pixkat hobeto ezagutuko gaituzue.**

### NOLA HASI ZEN

Gutxitu psikikoen hezitzaile teknikoen eskola, Zerbitzu Sozialen Institutu Nazionalak (INSERSO) sortu zuen 1978-79 ikasturtean, hezkuntza bereziaren alde bat hobetzeko esperimentu bezala, batez ere, gutxitu latz eta sakonei dagokien zainketari zuzendua.

"Gutxitu psikikoen hezitzailea" deritzaion zaintzailea diseinatzea pentsatu zen.

1980-81. urtean INSERSOk zentruaren gestioa utzi zuen eta orduan sortu zen lan didaktikoarekin jarraitzen duen kooperatiba. Ikasketa hauek 1987. urtean hasi ziren ematen gure zentruan.

### ZER DA HEZITZAILE TEKNIKOA

E.B.O.k definitzen du: "Gutxitu psikikoen hezitzailea gutxituaren prestakuntzaren arduraduna da, orientatuz, laguntza emanez eta ahal den neurrian, bizitza normalean integratzeko hezkuntza eta ohiturak (higiene eta bere buruaren zainketa barne) lortzeko lagunduz".

### HEZITZAILE TEKNIKOEN BETEBEHARRAK

Aplikazioak, bereziki, gutxieneko maila eta beraz, gehiengo inkapazitatea duten gutxituen atentzioan zentratzen dira. Hauek izango lirateke:

- Asistentzi zentruetako profesionalen taldearekin kolaboratzea aktibitateen plan orokorreko prestakuntzan.
- Adituek programaturiko aktibitateetan laguntza eman.
- Gutxituaren autonomi pertsonala eta bere integrazioa gizartean hobetzeko orientabide indibidualeko programetan kolaboratu.
- Zerbitzu ezberdinetako adituei gure eguneroko azterketari buruzko datoak eman.
- Familiak orientatu eta lagundu, bereziki etxebizitza familiarrean kokaturiko programen kasuetan.
- Errekuperazio edo hezkuntza prozesuaren jarraipen eta ebaluazioan parte hartzea.
- Hezitzaile bezala egiten duen aktibitatearen emaitza ebaluatu, era berean talde multiprofesionalekin kontaktua mantenduz.

### NON LAN EGIN DEZAKEGU?

Gehienetan ondorengo hauek izaten dira gure lan-lekuak:

- Eguneko zentruak edo bergizarteratzeko etxebizitzak.
- Erresidentziak.
- Tailer okupazionalak.
- Hezkuntza bereziko laguntzaile bezala OHOko zentruetan.
- Udalekuetan denbora libreko begirale bezala.

LH IIKO 3. MAILA.



Argazkian, Hezitzaile Tekniko izateko Mariaren Lagundian ikasten ari diren LH IIko 3. mailako ikasleak.

**Hezitzaile teknikoaren lanetako bat da asistentzi zentruetako profesionalen taldearekin kolaboratzea aktibitateen plan orokorreko prestakuntzan**

## .........................9 galdera motz

**54 urte ditu eta 37 daramatza Mariaren Lagundian lanean. Boxeoa eta zinea ditu gustoko, baina telebista ez.**



**Pedro M. Zubia**
***kontserjea***

**1 Zenbat urterekin hasi zinen hemen?**
17 urte nituela etorri nintzen Mariaren Lagundira.
**2 Ze lan egiten duzu?**
Mantenimenduaz arduratzen naiz.
**3 Lan asko izaten al duzu?**
A tope.
**4 Gustokoen duzun lana? Zergatik?**
Lanik egin gabe bizi da ondoen.
**5 Zenbat ordu egiten dituzu lanean?**
Egunero zortzi ordu.
**6 Ondo konpontzen zara ikasleekin?**
Bai, primerakoak dira, baita irakasleak ere.
**7 Anekdota bat?**
Gauzak desagertu egiten dira. Ikasleen errua da.
**8 Beste lanen bat izan duzu noizbait?**
Ez.
**9 Pozik BERRIGARAn agertzeagatik?**
Oso ilusionatuta nago.

## .Jolasean..................................

**Izki zopa**

***Aurki itzazu 10 euskal musika talderen izenak***

| | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| S | P | O | N | K | A | I | R | R | O | G | U | G | E | N |
| N | U | I | B | A | A | K | U | L | U | R | K | O | H | D |
| I | S | T | U | S | U | I | R | M | T | N | O | H | U | R |
| U | I | A | O | T | E | K | A | Z | E | T | R | B | N | A |
| U | R | T | E | B | A | N | E | S | T | M | T | D | K | K |
| P | I | S | U | T | A | G | A | R | T | U | A | M | I | I |
| K | A | N | I | A | Z | T | R | E | H | E | T | N | L | T |
| T | K | A | U | T | Z | I | A | G | E | M | U | H | O | A |
| E | G | U | H | E | L | E | B | N | A | T | O | R | O | S |
| S | U | T | A | N | K | A | Z | E | N | O | H | O | L | A |
| R | O | C | D | H | K | U | A | I | M | Z | T | A | L | O |

## Txisteak



**Jose Mari Baceiredo**

### INDIOAK

Mutil indio batek esaten dio bere amari:
- Ama, nire anaia zergatik deitzen da Ekaitza?
- Baaa..., zeren eta egiten geundenean ekaitza zegoen.
- Eta beste anaia zergatik deitzen da Gau ilun?
- Baaa..., zeren eta egiten geundenean gaua iluna zegoen. Enteratu zara Goma rota?

### BURUSOILA ETA KONKORRA

Esaten dio burusoil batek konkor bati:
- Zer daramazu motxilan?
- Orrazi bat, ergel hori!!

# Bergarako Udalaren aurrekontua 1995 urterako

| UDAL AURREKONTUA | |
|---|---|
| Udala | 1.928.020.000 |
| Udal Euskaltegia | 51.948.305 |
| Mizpirualde Egoitza | 219.500.000 |
| **Guztira** | **2.199.468.305** |

| SARREREN AURREKONTUA | |
|---|---|
| Zerga zuzenak | 353.000.000 |
| Zeharkako zergak | 44.000.000 |
| Tasak, prezio publikoak eta beste batzuk | 311.000.000 |
| Transferentzia arruntak | 713.010.000 |
| Ondasun sarrerak | 58.000.000 |
| Inbertsioak | 2.150.000 |
| Kapital transferentziak | 174.000.000 |
| Finantz Aktiboen aldakuntza | 5.200.000 |
| Finantz Pasiboen aldakuntza | 266.050.000 |
| **Sarrerak guztira** | **1.928.020.000** |

| GASTUEN AURREKONTUA | |
|---|---|
| Pertsonalaren gastuak | 527.295.000 |
| Ondasun arruntak | 377.215.000 |
| Finantza gastuak | 160.940.000 |
| Transferentzia korrenteak | 324.316.000 |
| Inbertsioak | 421.794.000 |
| Kapital transferentziak | 25.790.000 |
| Finantz Aktiboen aldakuntza | 5.200.000 |
| Finantz Pasiboen aldakuntza | 85.470.000 |
| **Gastuak guztira** | **1.928.020.000** |




## UDALKIDEAK

| | |
|---|---|
| Udalkideen lansariak | 28.990.00 |
| Gobernu erakundearen gastuak | 463.000 |
| Udalbatzak galdutako soldatak | 3.000.000 |
| Udalbatzaren dietak | 700.000 |
| Beste gastu batzuk | 430.000 |
| ■ GUZTIRA | 33.583.000 |

## IDAZKARITZA eta KONTUHARTZAILETZA

| | |
|---|---|
| Funtzionari eta langileen soldata eta aseguruak | 92.820.000 |
| Alokairuak | 1.935.000 |
| Eraikuntzen konponketak | 4.343.000 |
| Bulegoko gastuak | 10.525.000 |
| Kanpoko kontratuak | 7.520.000 |
| Aseguroak, tributoak, Notario gastuak etab. | 12.320.000 |
| EUDEL (Euskadiko Udalen Elkartea) | 500.000 |
| Mankomunitatea - Zaborrak | 41.320.000 |
| Mankomunitatea - Hiltegia | 1.730.000 |
| Bulegotako ekipamendu berria | 1.776.000 |
| Industrialdearen gestioa | 1.000.000 |
| Mizpirualdeko obrak | 15.960.000 |
| Langileentzako aurrerakinak | 5.000.000 |
| Maileguen interesak eta eragiketak | 161.140.000 |
| Maileguen amortizazioa | 85.470.000 |
| ■ GUZTIRA | 443.359.000 |

## GOBERNAZIOA

| | |
|---|---|
| Funtzionari eta langileen soldatak eta aseguroak | 191.970.000 |
| Azpiegituren konponketak eta mantenua | 25.471.000 |
| Ibilgailuen mantenua eta erregaiak | 4.110.000 |
| Bulegoko gastuak | 1.609.000 |
| Argiteria publikoa | 22.000.000 |
| Beste argindarrak eta gasa | 2.946.000 |
| Gastu orokorrak | 6.593.000 |
| Kanpoko kontratoak (Kale garbiketa 38.000.000) | 56.140.000 |
| Herrigunearen zoladura | 5.000.000 |
| Makineria eta erremintak | 9.350.000 |
| Kamioi berria (hainbat akzesorio) | 4.200.000 |
| Umeen parkeak | 13.000.000 |
| Beste inbertsio batzuk | 4.501.000 |
| ■ GUZTIRA | 346.890.000 |

## EUSKARA eta HEZKUNTZA

| | |
|---|---|
| Langileen soldata eta aseguruak | 18.630.000 |
| Bulegoko gastuak | 2.637.000 |
| Ekintzak | 2.800.000 |
| Transferentziak Udal Euskaltegia | 5.805.000 |
| Euskara Hitzarmena | 670.000 |
| UNED Euskara ikerketa | 1.000.000 |
| Subentzioa JARDUN eta BERRIGARA | 12.030.000 |
| Beste subentzioak | 3.060.000 |
| ■ GUZTIRA | 46.632.000 |

## KIROLAK

| | |
|---|---|
| Funtzionari eta langileen soldatak eta aseguruak | 59.505.000 |
| Igerilekuetako mantenimendu gastuak | 20.660.000 |
| Polikiroldegiko mantenimendu gastuak | 3.395.000 |
| Beste kirol instalazioen mantenimendu gastuak | 1.901.000 |
| Bulegoko gastuak | 1.030.000 |
| Ekintzak | 2.705.000 |
| Kanpoko kontratoak | 17.095.000 |
| Subentzioak kirolak / Ohizko ekintzak | 8.300.000 |
| Subentzioak kirolak / Ez-ohizko ekintzak | 600.000 |
| Beste subentzioak | 1.265.000 |
| Kirol Eskola | 4.010.000 |
| Mankomunitatea (Kirol iharduerak) | 690.000 |
| Inbertsioak igerilekuetan | 5.020.000 |
| Inbertsioak polikiroldegian | 1.300.000 |
| Inbertsioak beste kirol instalazioetan | 4.450.000 |
| ■ GUZTIRA | 131.926.000 |

## HEZKUNTZA

| | |
|---|---|
| Langileen soldata eta aseguruak | 24.910.000 |
| Bulegoko gastuak eta ekintzak | 5.027.000 |
| Ikastetxe publikoen gastuak | 7.474.000 |
| Eskola publikoetako pintaketa | 1.500.000 |
| Ikastetxe pribatuen gastuak | 1.713.000 |
| Eskola garraioa | 2.100.000 |
| Subentzioak - Hezkuntza | 15.226.000 |
| Subentzioak - HHI / EPA | 200.000 |
| Subentzioak - UNED | 10.000.000 |
| Subentzioak - Haurtzaindegia | 1.500.000 |
| Subentzioak - Musika Eskola | 14.000.000 |
| Subentzioak - Ikastetxeen irteerak | 300.000 |
| ■ GUZTIRA | 83.950.000 |

## AUZOAK eta UR ZERBITZUKO INBERTSIOAK

| | |
|---|---|
| Bulegoko gastuak | 1.044.000 |
| Materialak | 3.000.000 |
| Nekazal bide eta pistak, konponketa eta mantenua | 2.601.000 |
| Erramu Zapatua | 2.500.000 |
| Elosuko Feria | 680.000 |
| Mankomunitatea | 2.070.000 |
| Landaguneko lursailen erosketa | 1.000.000 |
| Auzoetako ekipamendua | 10.000.000 |
| Angiozarko Behe kaleko urbanizazioa | 3.000.000 |
| Gorlako kantina eta urbanizazioa | 500.000 |
| Mendi Nekazaritza (hainbat proiektu) | 23.700.000 |
| Baserri bideak eta kunetak | 5.000.000 |
| Landaketak | 3.000.000 |
| Baserri aldeetako argiketa | 200.000 |
| Hobi septikoak - Landa lurraldeak | 500.000 |
| Ur sarea - Landa lurraldeak | 650.000 |
| 1994ko isurketa kanona | 7.680.000 |
| Estolderia instalakuntzak | 1.000.000 |
| Ur sarean lanak | 4.000.000 |
| Ur kontsorzioa | 84.195.000 |
| ■ GUZTIRA | 156.320.000 |

## OBRAK, HIRIGINTZA eta INGURUGIROA

| | |
|---|---|
| Langileen soldata eta aseguruak | 29.460.000 |
| Bulegoko gastuak | 2.165.000 |
| Mobleriaren erosketa | 7.101.000 |
| Kanpoko kontratoak | 6.320.000 |
| Mankomunitatea, Zerbitzu orokorrak | 11.050.000 |
| SURADESA | 5.135.000 |
| Subentzioak | 600.000 |
| Urbanizazioak | 15.000.000 |
| San Pedro kaleko urbanizazioa | 14.000.000 |
| Proiektuak, ikerketak eta hainbat lan | 41.505.000 |
| Udaletxearen berrikuntza | 159.500.000 |
| Udal Pelotalekua | 50.000.000 |
| ■ GUZTIRA | 341.836.000 |

## OSASUN-GIZARTE ONGIZATEA

| | |
|---|---|
| Funtzionari eta langileen soldatak eta aseguruak | 42.915.000 |
| Osasuna eta dispensarioak | 357.000 |
| Gizarte laguntzailea | 811.000 |
| Hezitzaile berezitua | 7.170.000 |
| Enplegu sustapena | 4.432.000 |
| Emakume sustapena | 3.032.000 |
| Drogomenpekotasun Zerbitzua | 900.000 |
| Heziketa Okupazionalaren garapena | 24.250.000 |
| Elbarrituen garraioa | 1.210.000 |
| Hirigintza oztopoak | 2.070.000 |
| Tailer okupazionalak | 1.001.000 |
| Etxez-etxeko laguntzak | 30.330.000 |
| Transferentzia Mizpirualde egoitza | 40.785.000 |
| Subentzioa - DYA | 125.000 |
| Subentzioa - Gurutze gorria | 125.000 |
| Subentzioa - ONG | 2.500.000 |

| | |
|---|---|
| Subentzioa - Ongizate Iharduera | 14.300.000 |
| Subentzioa - Bono Taxia | 1.350.000 |
| Subentzioa - Udal tributuak | 1.500.000 |
| Subentzioa - Famili tratamendua | 500.000 |
| Subentzioa - Bideetakoak | 30.000 |
| Subentzioa - Larrialdi egoitza asistitua | 1.000.000 |
| Subentzioa - Drogomenpekotasunak | 2.800.000 |
| Subentzioa - Etxez-etxeko laguntzak | 1.360.000 |
| Subentzioa - Urbano garraioa | 1.850.000 |
| Subentzioa - Txolarte Astialdi Taldea | 65.000 |
| Subentzioa - Behar Zana | 55.000 |
| Subentzioa - Odol Emaleen Elkartea | 200.000 |
| Subentzioa - Jubilatuak | 500.000 |
| Subentzioa - Atzegi | 50.000 |
| ■ GUZTIRA | 187.573.000 |

## KULTURA eta JAIAK

| | |
|---|---|
| Langileen soldata eta aseguruak | 38.115.000 |
| Eraikuntzen alokairua eta mantenua | 4.415.000 |
| Kultur Etxeko gastuak | 5.955.000 |
| Bideo Gela | 3.471.000 |
| Artxiboa | 4.768.000 |
| Museoa eta Ondarea | 8.626.000 |
| Turismoa | 4.000.000 |
| Liburutegiak (Errotalde, Osintxu eta Angiozar) | 5.396.000 |
| Ludoteka (Hirian eta Osintxun) | 12.976.000 |
| Musika banda eta Txistulari banda | 8.278.000 |
| Kultur ekintzak | 12.576.000 |
| Justo Garate Beka | 1.170.000 |
| Bergarako martxen argitalpena | 1.300.000 |
| Monografien argitalpena | 1.100.000 |
| Justo Garate Bekaren argitalpena | 1.520.000 |
| Jai Batzordearen gastuak | 2.610.000 |
| Pentekoste jaiak | 10.500.000 |
| San Martin jaiak | 4.000.000 |
| San Pedro - San Martzial jaiak | 1.300.000 |
| Auzoetako jaiak | 2.005.000 |
| Errege kabalgata eta Bizar Zuri | 675.000 |
| Gabonetako argiak | 2.250.000 |
| Aratuzteak | 1.800.000 |
| Eskaparate lehiaketa | 100.000 |
| Gartzela Zaharraren konponketa | 5.000.000 |
| Udal kultur lokaletan lanak | 2.030.000 |
| Jaietako atoia | 2.035.000 |
| Ikerketa eta proiektuak | 1.600.000 |
| Subentzioa - Taun Taun | 425.000 |
| Subentzioa - Orfeoia | 1.100.000 |
| Subentzioa - Aritzeta | 550.000 |
| Subentzioa - Xamatz Dantza Taldea | 425.000 |
| Subentzioa - Moises Azpiazu Dantza Taldea | 100.000 |
| Subentzioa - Kobok Dultzainero Taldea | 45.000 |
| Subentzioa - Monja Frantziskotarrak | 150.000 |
| Subentzioa - Bergarako Kultur Ekintza | 775.000 |
| Subentzioa - Seilu Elkartea | 95.000 |
| Subentzioa - Haurren Eguna | 640.000 |
| Subentzioa - Simon Arrieta Zeramika Taldea | 350.000 |
| Subentzioa - Pol Pol Argazki Taldea | 425.000 |
| Subentzioa - Aske | 144.000 |
| Subentzioa - Kukuma | 95.000 |
| Subentzioa - Surra Irratizaleak | 136.000 |
| Subentzioa - Orfeoi Gaztea | 100.000 |
| Subentzioa - Txapa Irratia | 125.000 |
| Subentzioa - Beart | 200.000 |
| Subentzioa - Eusko Ikaskuntza | 500.000 |
| ■ GUZTIRA | 155.951.000 |

# Europako Ekonomia Elkartean egoteak kalte ala mesede egin digu?



**Melchor Markiegi**
*36 urte, langilea*

**D**iferentzia haundirik ez dut igarri, lehengo antzera gaudela uste dut. Hobera behintzat ez dut uste egin dugunik.



**Carmen Velasco**
*30 urte, langilea*

**T**xarrera. Adibidez, nekazariek eta arrantzaleek galerak besterik ez dituzte. Eta industrian ere egoera nahiko kaskarra dela dirudi.



**Mario Hernàndez**
*24 urte, langilea*

**N**ere ustez onera egin dugu aspektu gehienetan. Hala somatzen dut eguneroko bizitzan.



**Maria Jose Briongos**
*34 urte, langilea*

**E**z dut aldaketarik ikusten. Txarrera goazela dirudi, ez dakit infomazio osoa dugun ala hartzen diren akordio guztiak txarrak diren.



**Enrique Bardias**
*48 urte, langilea*

**O**so nekeza da baloratzea. Epe laburrera okerrago gaude baina epe luzerako etekinak jakitea ezinezkoa da.



**Leire Elizalde**
*22 urte, langabetua*

**I**txura batera atzean gelditzen ari gara beste zenbait herrialderekin konpetitu ezin dugulako. Ekonomia aldatu beharra dagoela ematen du.

Pepelu
Ilepaindegia
Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA

IXUKUN
BEREZITASUNAK
Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62
BERGARA




ARRANO
Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkale, 29 BERGARA



## Olakotxea zan

Ziur nago askok eta askok ez dakitela egitan nor zan.

Josu bergarar miña zan, eta ala erakutsi zuan aukera zeguan bakoitzean.

Orain urte batzuk dela, famili askok alde egin dute Bergaratik Donosti aldera, baña Josu Bergaran gelditu zan bizi izaten eta bertan il ere.

Jardun taldekoa zan eta gure Berrigaran idazten zuan noizik bein.

Kapirixo taldekoa ere bai zan, errian dauden balixosko gauzak zaintzen eta gordetzen arduratzen dena.

Urteetan eta urteetan Txomin Amazorrain zenarekin euskarazko klaseak ematen zituan egunero Elementaleko gela baten, bost xentimo kobratzeke.

Eta Promoción Cultural agertu zanean, lenengo batzarrean bost lagun bakarrik egon giñan (gero ugaritu baziran ere) baña bost lagun aren tartean bera egon zan.

Abertzale zintzoa zenez, orain EAko bazkide zan eta an ere batzordean lanean beti bezala.

Beraz lan ixilla baña etengabea egin zuan beti bezela euskararen eta erriaren alde.

Olakotxea zan bergararrok galdu degun gizona.

Goian bego.

**Asuntxi IDARRETA**



## Abstentzioa

Laster Udal hauteskundeak direla eta, jende askok buruhauste bat baino gehiago izango du botoa ematera joan ala ez erabakitzeko, eta egia esanda ez nau harritzen.

Hauteskunde garaian baino ez dira alderdi politikoak abstentzioaz arduratzen eta botoa ematea ezin garrantzitsuago bihurtzen da. Abstentzioa etsai gisa azaltzen da eta dirudienez botoa ez emateak ez dakar ezer onik.

Guzti hau azaltzeko bi ideia nagusi erabiltzen dira. Alde batetik, "demokraziaren" oinarria hauteskundeak direla eta, bestetik, botoa ez ematea mesedegarria dela boterean dagoen edo dauden alderdientzat. Beraz gauza baten behintzat alderdi guztiak daude ados: "ezinbesteko garrantzia du botoa emateak".

Honez gain, botorik ez emateak eskubidea kentzen omen dizu aurrerantzean egingo denaz kexatzeko, eta hau ez zait batere justua iruditzen.

Bozkatzera ez joateko hamaika arrazoi ezberdin egon daitezke, guztiak errespetagarriak, eta horregatik ez da zilegi denak poltsa berdinean sartzea.

**Jon Ander BENGOA**

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

EDEL
TAPIZDENDA
*Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu*
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta, 14 BERGARA

LAKET
gizon emakume
Barrenkale, 35 BERGARA

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

*Deco-Textil*
ZANGITU
Etxerako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.
Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69



35 bat lagun bildu ziren joan zen igandean herriko zaharrei Jubilatuetan eskainitako bazkarian.

## 87 urtekoei omenaldia

Igandean 87 urteko bergararrei omenaldia eskeini zitzaien **Jubilatuetan**. Meza entzun ondoren, ongi-etorria eman zitzaien bildutakoei eta, besteak beste, **Victoriano Gallastegi** alkatea, **Alvaro Esparza** Ongizate zinegotzia, **Mertxe Anton** Jubilatuetako zuzendaria eta **Joakin Zeziaga** Jubilatuetako presidentea izan ziren bertan. Jubilatuetako abesbatzak ere emanalditxo bat eskeini zuen eta jarraian omendutakoek (35 guztira) opari bana jaso zuten oroigarri modura. Azkenik, luntxa banatu zen egunari beharrezko amaiera emateko. Zorionak guztiei eta eutsi osasunari!

## Euskara eta kirola bi liburutan

Atzo goizean aurkeztu zen Donostian **Deba bailarako euskara eta kirol zerbitzuek** bultzatutako ***"Futbol entrenatzailea"*** eta ***"Kirol entrenamenduaren oinarriak"*** euskarazko kirol liburuen edizioa. Kirol munduan euskararen erabilera suspertzeko sortutako bekari esker, **Iñaki Friera** eta **Iñaki Azkune**k Chistian Bourrel eta Maurizio Seno frantziarren "Futbol entrenatzailea" izenburuko liburua itzuli dute eta **Ina Oiarzabal**ek eta **Aitor Zinkunegi**k, berriz, "Kirol entrenamenduaren oinarriak" izenburukoa idatzi dute. Liburu bakoitzeko **3.000 ale** kaleratuko dira eta bailarako kirol elkarte, ikastetxe edota liburutegietan doan banatuko dira ale gehienak. Gainontzekoak **1.000 pta.tan** jarriko dira salgai.




Deba bailarako euskara eta kirol zerbitzuek ostegunean Donostian aurkeztutako bi liburuak.

**Juan Ignacio MONTIANO Doktorea**
*Pediatra*
San Martin Osasundegia
Ramon Maria Lili, 2 ☎ 76 59 39

**CAMACHO**
**Drogeria**
**Usaindegia**
Bidekurutzeta, 24 BERGARA
☎ 76 13 35



## Txotxongiloak han eta hemen

Txotxongiloen majiak herria hartu bazuen astebukaeran, astean zehar ere ikastetxe ezberdinetako ikasleek mundu hori hobeto ezagutzeko aukera paregabea izan dute **"Panpinen antzerkigintzak 35 urte Kuban"** erakusketari esker. **Mercedes Fernández** gazte kubarrak, **Kristina Markina** bergararraren laguntzaz, 1959ko Iraultzatik hona Kuban eman den panpinen historia azaldu die ikasleei eta hauek liluraturik geratu dira panpinen berba egiteko moduaz, atrebentziaz eta umore bereziarekin. Kubatar txotxongiloak Estatu osoko jaialdi ezberdinetan zehar jira bat burutzen ari dira eta gaur bertan Cádizeko bidea hartu dute. Hurrengo batera arte!!



Goiko argazkian Marionetas del Matadero taldeak eskainitako *Concertino* ikuskizuna eta behekoan, Kultur Etxean ikusgai izan den Kubako txotxongiloei buruzko erakusketa

## Zertan *dihardute* ba?



**Olatz Garai** arrasatearra Bergarako jatetxeetan zehar izango da hurrengo asteetan Debagunek (Deba Garaiko euskara elkarteen elkargoak) bailarako udalekin batera martxan jarri duen programa baten barruan. Jatetxeetan euskararen erabilera bultzatu nahi da programa horrekin eta jatetxeen karta eta bestelako idatziak euskeratuko dira eta programan sartzen diren jatetxeekin gida bat kaleratuko da. Gida horretan 120 jatetxe inguru agertuko eta bertan jatetxe bakoitzari buruzko informazioa, errezetak eta jatetxe arloko hiztegia azalduko da.

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta, 5
☎ 76 20 34

Zumelaga
JATETXEA
IGANDETAN ZABALIK!!
San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

# Isabel Valle

**Irunen emaztegaien denda batean jardun bazuen ere, orain Isabel Vallek egunkari, aldizkari eta litxarkerien artean egiten du lan. Bideberriko txurrerian aurkituko duzu.**



**- Gustoko lana al duzu?**
- Oso lan atsegina da.
**- Asko saltzeko zer?**
- Jendea tratatzen jakitea.
**- Erraza al da irribartsu egotea?**
- Ez da ahalegin berezirik egin behar.
**- Noiz saltzen duzu gehien?**
- Igandetan meza ostean.
**- Egunkariak ala aldizkariak?**
- Piszina, lorategi eta emaztegaien aldizkariak.
**- Erregalodun aldizkariak asko saltzen dira?**
- Izugarri eta askok bakarrik erregaluagatik erosten dute.
**- Egunkariak irakurtzen dituzu?**
- Bai, denak eta goitik behera.
**- Nondik hasten zara irakurtzen?**
- Hasieratik.
**- Badago saltzen ez duzun zerbait?**

*"Emaztegaien denda batean lan egin eta horrelako lanak oso gustoko ditu. Liburuz beteriko gela urdin bat du. Puzzleak ere gustatzen zaizkio, baita lorak ere, baina inoiz ez du salduko aldizkari pornorik"*

- Aldizkari pornoak, sekula ez ditut salduko.
**- Titularretan zer irakurriko zenuke gustora?**
- Alokatutako pisuen jabeek etxea berreskura dezaketela.
**- Zerk asaldatzen zaitu?**
- Injustiziak.
**- Inoiz idatzi al diozu "Zuzendariari"?**
- Ez, baina ez naiz geldirik egotekoa.
**- Liburexcerpt irakurtzen duzu?**
- Etxeko gela bat liburuak gordetzeko dut.
**- Zein gomendatzen diguzu?**
- Ezin da gomendatu, denok gara desberdinak.
**- Zinezalea?**
- Bai, baina liburuetan oinarritutakoak ez ditut gustoko.
**- Genero bat?**
- Zientzia fikzioa.
**- Litxarkerietan: gaziak ala gozoak?**
- Gozoak...
**- Zer da gehien saltzen duzuna?**
- Gominolak eta txupatxusak.
**- Helduek erosten dituzte?**
- Pisurako dendetan bai, baina hemen lotsatu egiten dira.
**- Kolore bat?**
- Urdina, liburuen gela urdina da.
**- Aisialdian zer egiten duzu?**
- Pintatu, josi, puzzleak egin, lorak zaindu.

MUJIKA
Burdinaki denda
Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

INFERNUKUA
TABERNA
Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

POL-POL
Taberna
☎ 76 07 78



## ETXEBIZITZA

**Pisua** salgai Barrenkalen. Prezioan ados jarri gaitezke. ☎ 76 31 79.

**Pisua** salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 56 90.

**Garaje** bat alokatzen da. ☎ 76 55 50.

**Garajea salgai** Bolun. ☎ 76 05 86.

**Garajea** alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 49 87.

**Etxea salgai** Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

**Garajea** salgai Zurradero 2an. ☎ 76 12 42.

**Garajea** salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

**Pisu** bat alokatzen da San Pedro kalean. ☎ 76 13 23.

**Etxea** salgai Osintxun. ☎ 76 28 70.

**Pisua** alokatzen da Arrasaten. ☎ 77 14 24.

**Garajea** salgai Boni Laskurainen. ☎ 76 15 64.

**Pisua salgai** Artzamendi 17an. ☎ 76 10 55.

**Garajea** salgai Oxirondo enparantzan. ☎ 76 47 67.

**Garajea** salgai Burdiñaten. 3 milioi. ☎ 76 31 79.

## DENETARIK

**Mobylette** motorra (49 cc.) salgai. ☎ 76 59 15.

**Soinu** beltza salgai. ☎ 76 59 95.

**Yamaha** XT-E Trail motorra salgai. ☎ 76 03 40.

**Strong** bateria salgai. 20.000 pta. ☎ 76 32 39.

**Trialeko** Cota 349 motorra salgai. ☎ 76 18 96.

**Karabana** bat salgai. ☎ 76 46 97 (gauez).

**Volkswagen** "kakalardoa" salgai. IAT pasatu berria. ☎ (94) 673 01 22.

**Sukalde** eta jangelako altzariak salgai. Egoera onean. ☎ 79 01 66 (Aran).

Donostian **pisu** bat osatzeko pertsona bat behar da. ☎ 76 25 61 (Maite).

**Mobylette Cady** bat salgai. ☎ 76 54 73.

Estrainatu gabeko **kotxeko bateria** salgai. 80 anperio. Prezioa: 9.500 pezeta. ☎ 76 35 10.

**Volkswagen Polo GTI** (SS-AJ) kotxea salgai. Egoera onean. ☎ 76 38 72 (Asier).

**Opel Corsa TR** kotxea salgai. SS-V matrikula. ☎ 76 55 50.

**Donostian** (Amaran) pisua osatzeko pertsona bat behar da. ☎ 61 93 14 (gauez).

## LANA

**OHO** eta **ingeles** klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Haurrak** zainduko nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

**Frantsez** eta ingeles klaseak. ☎ 76 07 87 (Aran).

Etxez etxe **OHO**ko klaseak. Matematikak, ingelesa, euskara. ☎ 76 40 27.

**Propaganda** banatuko nuke. ☎ 76 17 84.

**Ingeles** batekin gaztelera eta ingeles klaseak aldatuko nituzke. ☎ 76 24 54.

**Matematika** eta Zientzietako klaseak. ☎ 76 06 50.

**BBB, UBI** eta **Lanbide Heziketa**ko klaseak. Baita etxez etxe. ☎ 76 18 00.

**Etxeko** lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89. Rosario.

**Etxeko** lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 32 58 (Ana).

**Zuzendaritza Idazkaritza** ikasi ondoren lan egingo nuke. ☎ 76 11 32 (Marta).

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

**OHO** eta zientzietako klaseak. ☎ 76 03 72 (Nerea).

23 urteko **mutil batek** astebukaeretan **lan** egingo luke. ☎ 76 64 65 (gauez).

**Aleman** klaseak ematen ditut. ☎ 76 00 81 (Idoia).

**Haurrak** zainduko nituzke. ☎ 76 08 55 (Miren).

**Ordenadorez** lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.


ARREGUI, E.M.

AROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
- ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

**Urteaga, 20 ☎ 76 11 73**
**Erakusketa: Bidekurutzeta, 38**

*Agentea:*
*Ramon IRAEGUI EGUREN*

*Ramon Maria Lili, 6 behea*
*20570 BERGARA (Gipuzkoa)*
*Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54*
*Faxa: 76 41 54*

*ORDUTEGIA:*
*Astelehenetik ostiralera:*
*9.00-14.00 eta 16.00-20.00*
*Larunbatetan: 9.00-13.00*

RAC VASCO NAVARRO

LAGUN ARO ASEGURUAK



*"Lehen erakusketa honetan 31 argazki erakusten ditut. Gehienak Landetan neguan ateratakoak dira"*

*"Diapositibetan bertan egindako muntaiak dira, argazkiak moztu eta muntaiak egin"*

**JOSE MARI GALAN**, ARGAZKILARIA

# "Errealitatea apurtu eta beste errealitate batzuk topatzen saiatzen naiz"

**Jose Mari Galan (Basauri, 1959), orain dela hamar urte etorri zen Bergarako institutura filosofia erakustera. Orain dela hiruzpalau urte, berriz, argazkilaritzari buru-belarri ekin zion. Gaur bertan inauguratuko du Bergarako Kultur Etxean bere lehen argazki erakusketa, "Errealitate hautsia" izenburukoa.**



"René Magrit pintorearen lanarekin identifikatzen naiz"

**- Zer erakutsiko duzu erakusketa honetan?**

- Azken hiru urteetan egindako lanaren fruitua da. Azken batean, René Magrit pintore belgiarrari egiten diodan omenalditxoa da. Ia urtero joaten naiz ikasleekin batera ikasketa bidaietara eta horietako batean, Bruselaseko museo batean Magriten koadroak ikusi nituenean, bere lanarekin identifikatu egin nintzen. Guztira 31 argazki dira: bateko 25, lau diptiko eta lau argazkirekin egindako beste bi. Guztiak koloretan.

**- Beraz, hortik dator "Errealitate hautsia"?**

- Bai, argazki guztietan badago surrealismo kutsu bat. Errealitatea apurtu eta beste erealitate berri batzuk aurkitzen saiatu naiz.

**- Eta ze teknika erabiltzen duzu errealitatea hausteko?**

- Beno, dipositibetan bertan egindako muntaiak dira. Artaziekin moztu eta montajea egin, sekulako lana. Gehienak aldez aurretik pentsatu eta prestatutako ideia batean oinarritutakoak dira. Lehenbizi zirriborro bat egiten dut, gero argazkiak atera eta azkenik muntaia egin. Zentzu horretan metodologia platonikoa erabiltzen dut: lehenbizi ideia landu eta gero, praktikara (praxisa) eraman. Filosofian ikasitakoak asko lagundu dit. Jendeak uste du argazkiak errealitatea kopiatzen duela eta ni kontrakoa erakusten saiatu naiz, argazkiak ez duela zer ikusirik errealitatearekin.

**"Filosofian ikasitakoak asko lagundu dit. Metodologia platonikoa erabiltzen dut: lehenbizi zirriborro bat egin, ideia landu, eta gero praktikara eraman"**

**- Argazkiak non atera dituzu?**

- Gehienak hondartzan ateratakoak dira, negu partean Frantziako Landetan, azken urteak itsasoari begira eman ditut eta. Hemen Bergaran ateratako batzuk ere badira. Giza modelo gutxi daude, baina agertzen direnak familiartekoak dira.

**- Estudioan ateratako argazkirik egiten duzu?**

- Ez, momentuz ez zait interesatzen, nahiago dut argi naturala erabiltzea, argitasun hori manipulatzerik ez dut nahi.

**- Argazkilari bat?**

- Robert Mapplethorpe. Orain dela urte batzuk hil zen HIESAk jota. Bilbon erakutsi dute bere lana: gizonezko modeloak erabiltzen ditu, beltz asko, sexuaren ikuspuntutik egindako argazkiak.

# LABEGARAIETAKO *futbito* txapelketa

## komentarioa

**Ezusteko ederra** eman duen azken jardunaldiak! Iazko liga txapelduna, Errotagain, kanporatu egin du Angiozarrek eta ez bakarrik ligatik, kopatik ere kanpoan gelditu dira Etxenagusiaken kontra galdutako partiduaren ondoren. Zerutik infernura distantzia gutxi omen dago eta Errotagaini infernuaren garrak probatzea tokatu zaio oraingoan bi partiduak gol bakar batez galdu ondoren. Baina txapelketak aurrera jarraitzen du eta igandean Angiozarrek eta Madurak finalerdietan izango dituzten arerioak ezagutuko dituzte. Kabia eta Ozaetak eta Arloteak eta Ufalak jokatuko dituzten partiduetatik irtengo dira horiek. Aurrez, bi partiduek ez dute faborito nagusirik eta edozeinek irabaz dezake. Kopari so eginez Etxenagusiak argi erakutsi du txapelketan dagoen talderik indartsuena dela, baina hori Arloteaken aurka baieztatu beharko du. Ezin izango du jokalari batekin kontatu, izan ere Antolaketa Batzordeak Aritz Uzin jokalariari, arbitroa mehatxatzeagatik, partidu bateko zigorra ezarri dio. Ea hurrengoan ez den horrelakorik errepikatzen.



Etxenagusiak taldeak Errotagaini 3 eta 2 irabazi zion astelehenean.

## Nesken txapelketako finalerdiak jokatuko dira larunbat goizean

Larunbat goizean Institutuko patioan jokatuko dira nesken futbito txapelketako finalerdiak. 10.45erako, Ubinsti eta Burdinezko Damak taldeen arteko neurketa iragarri da. Ondoren, The Blue Sisters eta The Best of the best taldeen artekoa jokatuko da. Txapelketan aritu diren zortzi taldetatik lau onenak dira eta neurketak parekatuak izango direla uste dugu. Ea ba!



Brudinezko Damek 2 eta 0 irabazi zieten Push Team-ekoei.

## emaitzak

**KOPA TXAPELKETA**

| | |
|---|---|
| Arloteak-**Soropotroak** | 1 - 0 |
| **Etxenagusia**-Errotagain | 3 - 2 |
| Ogizun-**Nahikari Hooll.** | 0 - 2 |

**LIGAKO PLAY-OFFAK**

| | |
|---|---|
| Errotagain-**Angiozar** | 0 - 1 |
| **Madura**-Bildurbarek | 0 - 5 |

**NESKEN TXAPELKETA**

| | |
|---|---|
| The Best-Etxakiñat | 6 - 2 |
| Ubinsti-Ura pa los peses | 7 - 1 |
| Sinatrak-Burdinezko Dam. | 5 - 0 |
| Push Team-The B. Sisters | 2 - 4 |
| The Best-Ura pa los peses | 1 - 0 |
| Push Team-Burdinezko | 0 - 2 |
| Ubinsti-Etxakiñat | 7 - 3 |
| Sinatrak-The Blue Sisters | 0 - 1 |

## partiduak

**LIGAKO PLAY-OFFAK**

IGANDEA

**16.00:** Kabia-Ozaeta

**Antolaketa Batzordea**

**17.00:** Arloteak-Ufala

**Antolaketa Batzordea**

**KOPA TXAPELKETA**

IGANDEA

**18.00:** Angiozar-Pagomendi

**Antolaketa Batzordea**

**NESKEN TXAPELKETA**

LARUNBATA

**10.45:** Ubinsti-Burdinezko Damak

**12.00:** The Blue Sisters-The Best

**Bi partiduak Institutuan**


Simon Arrieta, 3
Gorka
OINETAKOEN KONPONKETA
Mota guztietako konponketak
Bizkortasuna eta garantia osoa

ARTISAUTZAKO IZOZKIA
GOXO-TOKI
D. Irala, 3 - Tlf. 761235
Matxiategi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

### Pablo Irizar hirugarren Cartagenan

Pablo Irizar kotxe gidaria hirugarren sailkatu zen Cartagenako zirkuitoan jokatutako Supercopa ZX txapelketan. Postu horri esker Irizarrek hirugarren postuan jarraitzen du ZX zirkuitoaren barruan. Bestalde, AX kopan Martin Egañak ezin izan zuen lasterketa amaitu.

### Bergara-Eibar pelotan

Joan zen asteazkenean Deba Arroko txapelketaren barruan B.K.E.ko pelotariek galdu egin zuten Elgetaren aurka eta, ondorioz, euren taldean bigarren postuan sailkatu dira eta beste taldeko irabazlearen aurka jokatuko dute. Herri arteko txapelketan, berriz, Bergarak 3 eta 0 irabazi zion Hernaniri eta gaur bertan Eibarren aurka neurtuko ditu indarrak.

# Herriko hiru gimnasta Euskadiko txapelketan

**Ariznoa** gimnasia erritmika taldeko Amaia Ortiz de Urbina juniorra, eta Amaia Arrieta eta Ana Sebal jubenilak igandean Gasteizen jokatu den Euskadiko Txapelketan arituko dira.

Hiru kirolariak sokarekin, aroarekin, mazekin eta zintarekin arituko dira eta lehen hiruren artean sailkatzea lortzen badute ekainean Alicanten jokatuko den Espainiako txapelketara joango dira. Ana Arevalillo gazteen entrenatzaileak adierazi digunez, *"juniorretan papel ona egitearekin konformatzen gara eta jubeniletan Estatuko txapelketarako baterenbat sailkatzen bada pozik geratuko gara".*



Ana Sebal, Amaia Arrieta eta Amaia Ortiz de Urbina.

### Euskadi mailan punta-puntan

Euskadi mailan Ariznoa punta- puntan dabil eta Oviedon jokatu zen taldekako Espainiako txapelketan izan ziren pasa den urtean eta horrek denbora kendu die txapelketak prestatzeko. *"Espainiako txapelketarako koreografia berriak entsaiatu behar izan genituen eta horrek denbora kendu digu, baina gimnastek lan ona egiten dute entrenamenduetan eta emaitza onak lortzen ari gara"*. adierazi digu Arevalillok.

Guztira bost urtetik 16 urtera bitarteko 50 neska dabiltza Ariznoan eta arazo nagusienetariko bat entrenatzeko ordu falta da. *"Herrian kiroldegi bakarra dugu eta beste talde batzurekin banatu behar ditugu orduak eta azkenean ordu gutxi geratzen zaizkigu entrenatzeko".*



Zaleak taldeko kirolariak lan bikaina egiten ari dira.

# Emaitza onak atletismoan

Ordizian jokatutako Gipuzkoako txapelketan Bergarako Zaleak atletismo taldea gizonezkoen 4x100m proban 2. postuan sailkatu zen 50" 48 ehuneneko markarekin. Orain arte taldeak lortutako emaitzarik onenetarikoa da Alex Muela entrenatzaileak adierazi digunez. Gaur egun Zaleakek 50 fitxa inguru dituen arren, 25 bat kirolari ditu bi talde ezberdinetan banaturik. Hainbat espezialitate lantzen dituzte: "neguan krosean aritzen gara, baina udaberria heltzen denean pistan egiten dugu. Pistan hobeto ibiltzen gara" adierazi digu Muelak. Atletismo taldean dabiltzan kideen adinari begiratuz 14 urtetik 17ra bitarteko kirolariak dira. "Datorren maiatzaren 20an txapelketa garrantzitsua dugu eta 100 m.tako frogan hiru atleta bergarar arituko dira. Marka ona egiten badute Espainiako txapelketarako sailka daitezke" esan digu Muelak.

## KARTELDEGIA

### ▶ Futbola

**Bergara-Sporting Herrera**
Lehen mailako jubenilak.
Larunbata, 17.45. Agorrosin.
**Bergara-Arrasate**
Lehen mailako kadeteak.
Larunbata, 15.45. Ipintza.
**Nesken futbitoa**
Final aurrekoak.
Larunbata, 10.45.
San Martin ikastetxea.
**Labegaraietako txapelketa**
Liga eta kopako partiduak.
Igande arratsaldean.
Labegaraieta kiroldegia.

### ▶ Eskubaloia

**Bergara-Ordizia**
Kadete mutilak.
Larunbata, 17.45.
**Bergara-Pulpo**
Senior mutilak.
Larunbata, 19.00.
Biak Labegaraieta kiroldegian.



### ▶ Saskibaloia

**Bergara-Bosteko**
Senior mutilak.
Larunbata, 16.15.
**Bergara-Oztadar**
Kadete mutilak.
Larunbata, 12.15.
Biak Labegaraieta kiroldegian.

# Igor Unzurrunzaga

## Entrenatzaile lanetan gustora

**B.K.E.ko erregional lehen mailako taldeak hurrengo 4 partiduetan mailari eusteko partidu garrantzitsuak jokatu behar ditu. Taldearen etorkizunari eta egoerari buruz hitz egin dugu Igor Unzurrunzaga eta Roberto Zarobe taldeko entrenatzaileekin.**

**- Ze egoeratan aurkitzen zarete orain?**

- Azkenengo postuan gaude, baina hurrengo biek 3 eta 4 puntu ateratzen dizkigute eta oraindik 4 partidu ditugu jokatzeko. Horietatik guztiak irabazteko asmoa dugu. Halere galdu ezkero ez gara mailaz zuzenean jeitsiko; promozioa jokatu beharko genuke. Baina moralez topera gaude eta promozioari aurre egiteko garantia guztiak ditugu.

**- Bergaran jokatutako azken partiduan galdu arren, azkenengo partiduetan emaitza onak lortu dituzue, hasiera nahiko kaskarra izan arren...**

- Bai, lesioekin arazoak izan ditugu eta lehen taldean ere arazoak izan dituztenez jokalariak laga behar izan dizkiegu. Ondorioz, ezin genuen hamaikakorik errepikatu, baina azken boladan igandero alineazio berdintsuak atera ahal izan ditugu eta emaitza onak lortu ditugu. Horrezaz gain, taldea mailako gazteena da eta esperientzia hartu arte partidu asko galtzen dira. Aurten, asko azken minutuetan galdu ditugu esperientzia falta horregatik.

**- Talde gazte batekin lan egiteak ze zailtasun eta ze gauza on ditu?**

- Pega bakarra esperientzia falta da. Baina bestalde jende gaztearekin lan egitea oso ondo dago. Taldean oso giro ona dago eta gainera erregionaleko taldea lehen talderako jokalariak egiteko dago eta jeitsi arren gogoz lan egiten badute ez du inporta.

**- Ba al dago lehen taldera igotzeko moduko jokalaririk?**

- Talde honeta badira 3 edo 4 lehen taldera igotzeko modukoak.

**- Zuen partiduetara joaten al da jendea?**

- Bai. Azkueneren aurka 2 eta 6 galdu ondoren txaloka agurtu gintuzten. Agian lehen taldearekin kritikoagoak dira.

**- Falta diren lau partiduei begira zer eskatzen diezue jokalariei?**

- Orain arte bezala jarraitzea, kontzentrazioa eta suertea ditugun gol aukerak sartu ahal izateko. Hori horrela egiten badugu, mailari etsiko diogula uste dugu.




"Partidu asko azken minutuetan galdu ditugu, esperientzia faltagatik"

**"Lau partidu geratzen zaizkigu oraindik eta guztiak irabazteko asmoa dugu"**



# *Institutuan*

Erretratua, oiñ 27 eta 28 urteko neska-mutillak osatzen dabe. Institutuan lelengo maillan zebizen sasoikua da, 81-82 ikasturtekua. Ez dakigun gauza bat, mutil guztiak atzenengo illaran eta neskak aurrekuetan zeaittik daren, da.

**Goiko illaran:** Jose Luis Osinalde, Xabier Alberdi "Sato", Karlos Lasa, Patxi Legorburu, Andoni Bollar, Mikel Alberdi, Iñigo Elkoro, Asis Iriondo, Iñigo Irureta, Mikel Balujera, Ion Altuna, Roman Lazpiur.

**Erdiko illaran:** Amaia Bengoa, Arantzazu Salaberria, Miren Narbaiza, Amaia Toledo, Nerea Aperribai, Lore Azkarate, Igone Arana, Jone Larrañaga, Miren Sagastibeltza, Ainhoa Altuna, Itziar Garai, Ana Larrañaga.

**Beheko illaran:** Arantzazu Murgiondo, Amaia Lazkano, Nerea Arrieta, Teresa Hernando, Nere Amaia Laskurain, Idoia Lonbide, Itziar Mujika.

***Testua: Felipe Iñarra***

Atseden zentrua
LOKARTU
Koltxoi-denda
Orain SORALUZEN

KOXKA



Fraiskozuri, 3 ☎ 76 23 89

• Gozokiak
• Fruitu lehorrak
• Jaunartze eta jaietarako enkarguak

ZUBIETA
elektragintza
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48




# BOLINTXO KIROLAK

Ibargarai, 10 ☎ 76 38 32



***DENDA BERRIZTU DUGU***
***Zure esanetara gaude***
***EHIZA, ARRANTZA, MENDI ETA KIROLETAKO OSAGAIAK***

***DENA % 15eko DESKONTUEKIN***

---

# ARGALDU!!!

## ORDENADORE BIDEZKO SISTEMA BERRIA

**JAKIN NAHI BADUZU:**

- **ZER grasa portzentaia duzun**
- **ZER muskulu-masa portzentaia duzun**
- **ZER likido (erretentzioa) portzentaia duzun**

NOVA LINE

***NOVA LINEk hori guztia jakiteko***

***aukera eskaintzen dizu***

***Eska ezazu txanda HURBIL dietetikan!!***

**HURBIL DIETETIKA. Telesforo Aranzadi, 2 ☎ 76 30 08**

# ELKAR
## ELEKTRAGINTZA

Zure zerbitzura!!

**Mota guztietako instalazioak**



☎ 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.

BERGARA





**IPINTZA INSTITUTUA**

- BBB 2
- UBI
- LOGSE BATXILERGOAK:
  - NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
  - GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK



**M. ALTUNA INSTITUTUA**

- L.H. II
  - MEKANIKA 2., 3.
  - ELEKTRIZITATEA 2., 3.
- BTI - 2
- BAG - 2
- II. MODULUA
  - ADMINISTRAZIO ETA GESTIO LAGUNTZAILEA
  - MAKINA ERREMINTAKO OPERATZAILEA
- III. MODULUA
  - MEKANIKAGINTZA
  - ENPRESEN ADMINISTRAZIOA ETA GESTIOA
  - SISTEMA AUTOMATIKO PROGRAMAGARRIAK
- LOGSE BATXILERGOAK
  - TEKNOLOGIKOA



**M. ALTUNA INSTITUTU BERRIA**

- IEE 1., 2.
- BBB 1.

**AURREMATRIKULAZIOA:**
- MAIATZAREN 4tik 18ra.

**HELBIDEAK:**
- MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA
  IBARGARAI, 1
  20570 BERGARA
  ☎ (943) 76 24 91 / 76 38 40
- IPINTZA INSTITUTUA
  BONI LASKURAIN, 19
  20570 BERGARA
  ☎ (943) 76 31 42 / 76 31 43

***KALITATEZKO HEZIKETA DOHAINIK***